

Landareen beharra

Alaitz Telletxea eta Josetxo Goia-Arribek musikariek, eta Klara Badiola eta Xebe Diez aktoreek landareak gustuko dituzte. Etxean eta mendian. Landareekin eta loreekin duten harremana kontatu diote laurek EGUNKARIARI

Alaitz Telletxea ■■ Musikaria

«Arrosa zuriak oso gustuko ditut»

Alaitz Telletxeak hainbat landare dauzka bere etxeko terrazan. «Etxe batera bizitzera etorri naiz, eta lehengokoek bazeuzkaten landareak etxe honetan», dio Alaitzek. Terrazako landare horiek ez daude oso zainduta, baina terraza txukuntzea da Alaitzen asmoa: «Beste lore batzuk ekarriko ditut, arrosak eta beste landare batzuk, eta ondo zainduko ditut. Lehen, arrosak bazeuden hemen, baina ez oso zainduak». Izan ere, arrosak dira Alaitzek gustuko dituen loreak. «Arrosa zuriak oso gustuko ditut», esan dio EGUNKARIARI.

Alaitzek onartu digu landareak

zaintzen ez dagoela oso ohitua, «nagikeriagatik». Lehen, gurasoen etxean zeuzkan landareak aitzak zaintzen zizkiola aitortu digu: «Aitzak zaintzen zituen beti».

Lore sorta bat opari ederra da, Alaitzen aburuz. «Lore sorta bat opari egin dut noizean behin. Lore sorta bat opari politada. Jasotzea ere gustuko dut».

Landararik gabe, zerbaiten gabezia sumatuko luke Alaitzek: «Etxea lorerik gabe tristea izango litzateke, loreek beste alaitasun bat ematen baitiote etxeari. Politak dira etxean edukitzeko, etxe-ari bizi ematen baitiote».



GARI GARAIALDE

■■■ Alaitzen aburuz, loreek «beste alaitasun bat» ematen diote etxeari.



MIKEL SAIZ

■■■ Josetxo Goia-Arribek magnoliak eta haginak atsegin ditu.

Josetxo Goia-Arribek ■■ Musikaria

«Landare basatiak atsegin ditut»

Josetxo Goia-Arribek saxofoi jole iruindarrak atsegin ditu landareak. «Bai, noski», azpimarratu dio EGUNKARIARI. Magnoliak eta haginak oso gustukoak ditu. «Magnoliaren hostoek distira berezia dute berez, bizigarritasun handia». Magnoliaren loreen usaina atsegin du: «Bere loreen usaina ikaragarria da». Era berean, haginak beti hunkitu izan du Josetxo Goia-Arribek: «Ez dakit zergatik. Oso polita da hagina. Batez ere mendian, basati moduan; lorategietan ez».

Mediterraneoko zuhaixkak ere atsegin ditu musikari nafarrak:

«Ezkaia eta labanda. Batez ere, usaina dut gustuko Mediterraneoko zuhaixketan, usain hori usaintzen duzunean sentitzen duzunak».

Pinu insignis zuhaitza atsegin du gutxi. «Ikaragarri arrotza, itsusia da», Josetxo Goia-Arribek hitzetan: «Insignis pinuak sortu orbela ez da batere ibilgarria; bere inguruko lurra hondatzen du, dena jaten baitu».

Loreak, landareak eta arbolak basati ditu gustuko, «mendian edo basoan, beti basati». Lilia oso gustukoa du Josetxo Goia-Arribek. «Pirinioetan basati, Nafarroako Pirinioetan, ni bizi naizen tokian».


HONDALANAK



GAIMAZ S.A.
ETA OIHANEZTATZEA

HONDALANAK ETA OIHANBIDEAK EGITEA
LURRA PRESTATZEA, SASTRAKA KENTZEA,
LANDAKETAK, OIHANEZTATZEA
ETA LORAZAINTZA

Agustin Deunaren kalea, 3 behe - 48270 MARKINA (Bizkaia)
Tel.: 94 616 74 36 / 94 616 74 45 - Faxe: 94 616 76 11
e-mail: gaimaz@comunired.com



LANDARE EDERGARRIEN
MINTEGIAK

Goitoltza, 59
Tel.: 94 455 51 00
Faxe: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (Bizkaia)



LORATETXEA

MINTEGI PROPIOAK

Tel.: 943 49 32 41
Mug.: 626 09 56 42
Iturriotz auzoa
20180 OIARTZUN